

ALKATE DEKRETUA

Ikusirik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88.7 artikulua eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikulua ezarritakoa.

Hirigintza/Zerbitzuak sailean brigada eta herri lanen arduradun lanpostua lehiaketa bereizi bidez betetzeko behin betiko onartuen zerrenda

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean otsailaren 13ko datuz argitaratu zen Oñatiko udaleko Hirigintza/Zerbitzuak sailean brigada eta herri lanen arduradun lanpostua lehiaketa bereizi bidez betetzeko deialdia eta oinarriak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2023 urteko 29. aldizkaria).

Aipatutako prozesuan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea amaitu zen eta 2023ko martxoaren 7ko datuz eman zen aurkezturikoen onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda. Dagokion erreklamazio epea igaro ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu, beraz, Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez, eta 7/1985 Legearen 21.1 g) h) eta i)- xedapenek ematen dizkidaten ahalmenetan oinarrituz,

ERABAKI DUT

Lehena. Deialdi honetara aurkeztutakoan onartu eta baztertuen BEHIN BETIKO zerrenda onartzea.

Onartuak

BERISTAIN EIZAGUIRRE, ANDONI

Baztertuak

Inor ere ez.

Bigarrena. Deialdi honen hautaketa-prozesuko Balorazio batzordeko kideak izendatzea.

Balorazio Batzordea

Batzordeburu: Xabier Berridi Iriarte jauna, Aparejadorea

Kideak:

Iñaki Landa Azkoaga, Arkitektoa

Ana Jesus Cortabarría Santos, Baimen eta Jardueren administraria.

Blanca Olalde Inza, idazkaritzako administraria

Idazkaria: Oñatiko Udaleko AOT–GGBB eta Antolakuntza Teknikaria

Hirugarrena. Hautaketa prozesuaren berri Oñatiko udaleko Iragarki Taulan nahiz www.oñati.eus web orrian emango da.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2023ko martxoaren 13an

ALKATEAK

Izaro Elorza Arregi

